


BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



LEON&LEVY. BIRTAGI FUNTSA.

DONOSTIARREK ARGAZKI-IMAJINARIOAN GORDETA DUTEN GELTOKIA

Argazkigintza gure oroimenaren zati bat da, gure oroitzapenena; batzuk hurbilekoak eta beste batzuk, ahaztuak. Argazkiak gertakari historikoe-tara hurbiltzen gaitu, jada existitzen ez diren espazioetara eramaten gaitu. Donostiak 1864an harresiak galdu zituen: gure argazki-ima-jinarioan baino ez daude. Urte horretan bertan, eraikuntza berriak zeuden, trena ia erdiguneraino iristen zen, paduretan geltoki berri bat zegoen, eta ia parean, Amara auzoa eta San Bartolome gaina. Zezen-plaza, egurrez egina, geltokiaren atzealdean zegoen; bigarren karlistaldian su hartu zuen plazak. Geltoki berriak bidaiariak, beste herri batzuetatik etorritako jendea eta etorkinak hartu zituen. Horrela, eraikin hura familia, lagun eta ki-deen elkargune izan zen, eta gerren, agurren, zaurituen nahiz preso ohien harreraren eta berrelkartzeen lekuko izan zen. Baina, batez ere, do-nostiarren eraikina izan zen, enblematikoa eta belaunaldiz belaunaldi bizirik iraun zuena. Hiriak zulatzen dituzten eta arkitektura eta gure onda-re hurbilena suntsitzen duten makinek eraman dute. Geltokia gure oroimenean baino ez dago, gure argazki-ima-jinarioan, 1864an eraitsitako harresiak bezala. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1864an sortutako Leon&Levy argazkilari frantsesen enpresak egin zuen.